OÑATIKO HERRIAN HEZKIDETZA PROGRAMA GAUZATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZ

BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA

Aurkibidea

I.- AGIRIAREN XEDEA 2
II.- AURREKARIAK, GAIA BERE TESTUINGURUAN KOKATZEA 2
III. LAGUNTZA TEKNIKOAREN BIDEZ LORTU NAHI DIREN HELBURUAK. (LANAREN IRISMENA). 2
IV. ENPRESAREN ZEREGINAK 4
V. LAN EGUTEGIA..... 5
VI.- GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK..... 5
VII.- ESLEIPENDUNAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK..... 6
VIII.- ESKEINTZEN EDUKIA.....6
IX.- ZERBITZUAREN IRAUPENA 7
X.- GEHIENEKO PREZIOA.....7
XI.- LANAREN JABETZA.....7
XII.-INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA ETA LEGEZKO XEDAPENAK BETETZEA, DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZ 7

I.- AGIRIAREN XEDEA

Agiri honen xedea da baldintza teknikoak definitzea, OÑATIKO HERRIAN HEZKIDETZA PROGRAMA GAUZATZEKO ZERBITZUA erregulatzen dutenak. Zerbitzu honen bidez, Oñatiko ikastetxeen hezkidetza programaren diseinua, garapena eta ebaluazioa egin eta herriko gazte eta helduei sexu aholkularitza zerbitzua eskaintzea da helburua. Egitasmo honen bidez, tradizioz ezarritako balio, rol eta estereotipoen gaineko hausnarketa zabaldu, eta harreman osasuntsu eta libreen garapenerako oinarriak fintzen jarraitu nahi dugu Oñatin.

Agiri honetaz gain, kontuan hartu beharko da zer dagoen ezarrita administrazio klausula berezien agirian.

II.- AURREKARIAK, GAIA BERE TESTUINGURUAN KOKATZEA

Eusko Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 18ko emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko legea onartu zuen, eta bertan ezartzen dira toki administrazioek jarraitu beharreko printzipioak eta emakumeen eta gizonen berdintasuna erreala izan dadin bete behar dituzten eginkizunak.

Eginkizun horiek ardatz hartuta, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planean jasotzen da besteak beste, emakumeen genero kontzientzia, auto-estimua eta autonomia garatzeko laguntza ematea(1.2.), emakumeen eta gizonen arteko Berdintasuna gizarte balioa dela onartzeko laguntza ematea(3.1.) eta herritartasun-eskubideak erabiltzea bultzatzea hezkidetzaren bidez(3.2.), bai eta emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa ikerketa eta prestakuntza hobetzea(6.2.), eta prebentzioa sustatzea (6.3.).

Oñatiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. planak ere jasotzen du sentsibilizazioan eta indarkeria matxistaren prebentzioan sakontzeko beharra, Autonomia Pertsonala eta balioak aldatzea izeneko programan, eta emakumeen kontrako indarkeriaren sentsibilizazio eta prebentzio programan.

Aurrean esandako guztia kontuan hartuta, Oñatiko udalak hezkidetza programa indartzeko erabakia hartu du, sentsibilizazioa eta prebentzioa ardatz, genero mugarik gabeko harreman ereduak eraikitzea helburu.

AURREKARIAK

2013an jarri zen martxan hezkidetza egitasmoa Oñatiko udalean, eta aurrerapen nabarmenak izan ditu ordutik. Urteak daramatzagu herrian egitasmo hau ezartzen herritarren beharretara egokitzen, oraindik gure jendartean esparru honetan eragiteko premia ikusirik.

Bi lan esparrutan egikaritzen da egitasmoa gaur egun: Herriko ikastetxeetan esku-hartzea, ikasleen eta irakasleen formazio eta sentsibilizazioan eragiteko, eta Sexu aholkularitza zerbitzua: gaztelekuan ostiral arratsaldero ematen den arreta zerbitzuarekin, ikastetxeetan emandako saioen osagarri edo indartze bezala. Gazte lekuko erabiltzaileak ez diren herritarrei zuzenduta, Xirrika sexu aholkularitza zerbitzua eskaintzen da, herriko beste espazio batean.

III. LAGUNTZA TEKNIKOAREN BIDEZ LORTU NAHI DIREN HELBURUAK (LANAREN IRISMENA).

Esleipendunak honako helburuak bete beharko ditu:

- Oñatiko ikastetxeetan hezkidetza lantzea, herriko haur eta gazteek harreman eredu parekideak garatu ditzaten sustatzeko.
  - Aholkua, prestakuntza eta laguntza ematea Oñatiko ikastetxeei, hezkidetza zehar lerroko irizpide gisa prozesuetan txertatzeko.
  - Emakumeen eta gizonen arteko egiturazko ezberdintasun egoerei buruzko sentsibilizazio saioak eskaintzea, desberdintasun egoerak antzemateko adierazleak eta gainditzeko tresnak eskaintzea. Portaera sexistak eta genero estereotipo eta rolak gaitzetsi eta ezabatzea.
  - Zainketaren balio soziala agerian jartzea eta berekin daramatzan zereginen banaketa zuzen eta arduratsua sustatzea, pertsonen arteko dependentziaz jabetuz.
  - Gogoeta egitea gaur egungo edertasun kanonen gainean, eta genero aginduetatik askea den edertasun moduen bilaketa bat bultzatzea
  - Mugimendu feministaren historia eta eginiko ekarpenak balioan jartzea.
- Herriko ikastetxeetan indarkeria matxistaren prebentzioa eta detekzioa lantzea, emakumeen ahalduntzea ardatz.
  - Jarrera sexistak identifikatu, deslegitimatu eta murrizteko baliabideak eskaintzea.
  - Harreman ereduen gaineko hausnarketa bideratzea, harreman sare osasuntsuak eratzea sustatuz.
  - Indarkeriaren izaera estrukturalaren gaineko hausnarketa bideratu, eta kontzeptuak argitzea, gizarteko uste okerrak edo mito faltsuak deuseztatuz.
- Konfiantzazko gune bat sortzea sexualitatearen eta sexu harremanen inguruan askatasun handiagoz hitz egin eta hausnarketa bideak ireki ahal izateko.
  - Sexualitatea funtsezko balore positibo moduan azaleratzea, uste okerrak, beldurrak eta tabuak uxatuz eta egiazko informazioa eskainiz.
  - "Sexualitate" kontzeptua ekintza plural eta anitz bezala finkatzea desira, afektu, adierazpen, emozio, elkarrekintza erotiko, gorputz eta gozamenean.

- Sexu eta genero aniztasunaren gaineko eta harreman ereduen gaineko hausnarketa bideratzea, harreman eta identitate askatzaileak eraikitzera bideratuta
- Ekintza arduratsuak bultzatzea, baliabideak eta informazioa eskainiz, sexualitatea modu jakitun eta osasuntsuagoan bizitzeko.

IV. ENPRESAREN ZEREGINAK

Ondorengoak dira enpresaren egitekoak, eta egiteko bakoitzari aurreikusten zaion gutxieneko ordu dedikazioa:

1) Ikastetxeetan esku-hartzea
   a. Ikastetxeetan hezkidetza zeharkakotasunez txertatzeko beharrezko prestakuntza eta aholkularitza emango zaie Lehen hezkuntzako, bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide heziketako irakasleei. (40 ordu)
   b. Sentsibilizazio eta prestakuntza ikastaroak emango zaizkie Lehen hezkuntzako bosgarren mailatik lanbide heziketara bitarteko ikasleei, haien adinetara egokituta, eta ikastetxeetan egiten den esku hartzea osatuz eta indartuz. (140 ordu)
2) Sexu aholkularitza zerbitzua - Xirrika (110 ordu)
   a. Gazte lekuko erabiltzaileei zuzendutako aholkularitza zerbitzua
   b. Herritarrei zuzendutako aholkularitza zerbitzua
   c. Emailez edo telefonoz egiten diren kontsultak atenditzea.
   d. Gazte lekuko hezitzaileekin koordinazio mekanismoak ezartzea
3) Koordinazioa, jarraipena eta ebaluazioa (40 ordu)
   a. Oñatiko hezkidetza mahaian parte hartzea.
   b. Datuen bilketa sistematikoa egitea, generoaren arabera berezituta, zerbitzuaren jarraipenerako
   c. Berdintasun departamenduarekin harremanak: Koordinazio, jarraipen eta ebaluazio sistema eta dinamika ezartzea, horretarako beharrezko diren bilerak zehaztuz.
   d. Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastetxeekin lehenengo bilera bat izan ondoren, ikasturteko plangintzaren inguruko txostena helaraztea berdintasun teknikariari, honakoa zehaztuz: Ikastetxe bakoitzean egingo den esku-hartzearen inguruko laburpena, kronograma, identifikatutako beharrak eta neurri zuzentzaileak.
   e. Ikasturte bakoitzeko lehenengo hiruhilekoaren ondoren jarraipen txostena helaraztea Berdintasun teknikariari, honakoa zehaztuz: Ikastetxe bakoitzerako ikasturte hasieran egindako plangintzaren laburpena, kronograma, lehenengo

hiruhilekoan egindako esku-hartzean eginiko ordu kopurua, sexu aholkularitza zerbitzuan eginiko ordu kopurua eta erabiltzaile kopurua generoaren arabera berezituta, intzidentziak eta hobekuntza proposamenak.

f. Ikasturte bakoitzaren amaieran ikasturteko balorazio txostena helaraziko zaio Berdintasun teknikariari honako informazioa jasoz: Esku-hartzean burututako ordu kopurua, erabiltzaile kopurua generoaren arabera bereizita, ikasturtearen balorazio orokorra ikastetxeka banatuta, ezarritako helburuen betetze mailaren gaineko ondorio nagusiak, intzidentziak eta hobekuntza proposamenak.

V. LAN EGUTEGIA

Heziketa zentroen egutegiaren araberakoa izango da programaren denbora-erreferentzia.
Programaren kronograma eta zerbitzuak garatzeko kalendarizazioa ikastetxeekin eta udaleko Berdintasun departamenduarekin adostuko da.

VI. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Giza baliabideen planifikazioaren proposamen zehatza aurkeztu beharko du enpresa esleipendunak.

Beti ere, lan talde teknikoa gutxienez lanpostu hauetaz egon beharko da osatuta:

- Proiektuaren arduradun bat, ikastetxeekin eta Berdintasun arloarekin harremanetan egongo dena eta egitasmoa koordinatzeaz arduratuko dena
- Ikasgelan eta ikasgelatik kanpoko esku-hartzeaz arduratuko diren pertsonak.

Dagozkion curriculumak aurkeztuta, esleipendunak lana egiteko izendatutako pertsonek ondorengo baldintzak betetzen dituztela egiaztatu beharko du:

- ☐ Lizentziatura, diplomatura edo graduko ikasketak
- ☐ Berdintasun gaietan formazioa (gutxienez 150 orduko prestakuntza erakunde publikoek antolatuta edo homologatuta)
- ☐ Hizkuntza gaitasunari dagokionez, euskararen ezagutza maila altua duela, EGA agiriaren, 3 HE edo C1 mailaren bidez.
- ☐ Sexu aholkularitza zerbitzua eskainiko duen pertsonak gaian formazio espezifikoa edo antzeko lanpostuan gutxieneko 2 urteko esperientzia duela egiaztatu beharko du.
- ☐ Proiektuaren arduradun eta koordinatzaileak, aurrekoez gain, gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatu beharko du hezkidetzako programak garatzen.

Kontratua hasi ondoren, zerbitzua eskainiko duten pertsona berriak hasten badira, aurreko ataletan zehaztutako gaitasunak dituztela egiaztatu beharko da.

VII.- ESLEIPENDUNAK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

- Udalak ezarritako jarraibideak bete beharko ditu zerbitzua gauzatzerakoan.
- Bere konturako langileek eta zerbitzuaren erabiltzaileek portaera ona izan dezaten aztertzea eta zerbitzu egokia eskaintzea.
- Kontratu honen betebeharrak beste bati errentan ez ematea, lagatzea edo eskualdatzea.
- Gai laboral, fiskal eta Gizarte Segurantzan indarrean dauden xedapenak betetzea
- Ordutegi prestutasuna zerbitzua emateko, sor litezkeen beharretara egokitu ahal izateko.
- Hezkidetza mahaiak deitutako bileretan parte hartzea
- Oñatiko emakumion kontseiluarekin elkarlana bideratzea, hala eskatuz gero.
- Hezkidetza programaren garapenean aintzat hartzea Berdintasun Legeak ezarritakoak (4/2005 Legea), bai eta EAEko eta Oñatiko emakumeen eta gizonen berdintasunerako planak ezarritakoa.

VIII.- ESKAINTZEN EDUKIA

Aurkeztutako eskaintzek gutxienez honako hauek jaso beharko dituzte:

▫ Proiektuaren xedea eta fokatzea kontuan harturik, kokapena, helburu orokorrak eta helburu zehatzak.

- Egitasmoa bere testuinguruan kokatzea.
- Helburu orokorrak definitzea
- Helburu zehatzak definitzea

▫ Lan-metodologia, plangintza eta zereginak.

- Metodologiaren izaera eta berezitasunak
- Ikasleekin landuko diren jardueren zehaztapena
- Irakasleekin landuko diren jardueren zehaztapena
- Sexu aholkularitza zerbitzuaren jardueren zehaztapena
- Plangintza bat aurreratzea, denboran kokatuta
- zeregin edo egitekoak zerrendatzea eta hauek helburu zehatzekin lotura izatea.

Koordinazio eta jarraipen mekanismoak zehaztea

- Egitasmoaren jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak zehaztea
- Ezarritako helburuen lorpen maila baloratzeko adierazleak finkatzea

- Ikastetxeekin, gaztelekuko hezitzaileekin eta udaleko Berdintasun teknikariarekin koordinazioa nola bideratu azaltzea.

IX.- ZERBITZUAREN IRAUPENA

Zerbitzuaren iraupena bi urtekoa izango da kontratua sinatzen den egunetik.

X.- GEHIENEKO PREZIOA

Urteko gehienezko aurrekontua 24.350€koa izango da (BEZa salbuetsita duen eragiketa, 102/1992 Foru dekretuaren 20. Artikuluak xedatutakoaren arabera)

XI.- LANAREN JABETZA

Udalak izango du zerbitzuaren ondorioz sortutako memoria eta txostenen eta bestelako euskarrien gaineko jabetza intelektuala eta ustiapen eskubidea.

XII.- INFORMAZIOAREN TRATAMENDUA ETA LEGEZKO XEDAPENAK BETETZEA, DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZ

1. Edozein informazio tratatu, komunikatu eta lagatzean, horiek datu pertsonalak izanez gero (ikasleen datuak, matrikulazioak eta abar), adjudikaziodunak uneoro bete beharko ditu indarrean dauden xedapenak horri buruz eta, are zehatzago, Europar Batasunaren eta Kontseiluaren, 2016ko apirilaren 27koa, 2016/678 Erregelamenduan, pertsona fisikoak babesteari buruz, datu pertsonalen trataerari dagokionez eta datu horiek libre zirkulatzeari dagokionez, eta kontuan hartuta hura garatzen duen araudia

2. Oñatiko Udalak datu pertsonalen titular izaera izango du, beharrezkoak direnak kontratazio honetako xedeko zerbitzuen jarduera kudeatzeko, gaur egun erregistratuak behar bezala Datuak Babesteko Euskal Agentzian.

3. Enpresa adjudikazioduna behartuta egongo da lagapen hitzarmen espezifiko bat sinatzen, datu pertsonal horien tratamendurako. Ildo horretan, ezingo ditu aplikatu edo erabili datu pertsonalak, lortzen baditu kontratua dela-eta hor agertzen den helburua ez den beste helburu baterako, eta ezingo dizkie laga beste pertsona batzuei ezelan ere, ezta gordetzeko ere.

4. Kontratu prestazioa bete eta gero, enpresa adjudikaziodunak datu pertsonal tratatuak entregatuko dizkio Oñatiko Udalari. Enpresa emakidadunak bereak suntsitu beharko ditu, ez bada udalaren baimen idatzia dagoela, arrazoitua geroko zerbitzuak egon daitezkeelako, eta hala bada, biltegiratu ahal izango dira, segurtasun baldintza egokiez, bost urteko aldi batez.

5. Halako edozein bete ezean, adjudikaziodunak erantzungo du afektatuaren aurrean, baina erantzukizuna izan dezake enpresa adjudikaziodunak Oñatiko Udalaren beraren aurrean, agiri hauen arabera.

6. Adjudikaziodunak, kontratuaren adjudikazioa jakinarazi ostean eta jarduera hasi baino lehen, idatziz bete beharko ditu konpromisoak, beharrezkoak direnak Oñatiko Udalaren esku dauden datu pertsonal tratatu ahal izateko, Europar Batasunaren eta Kontseiluaren, 2016ko apirilaren 27koa, 2016/678 Erregelamenduan azaldutakoarekin bat etorriz.

Oñatin, 2021eko apirilaren 23an

Izp.: Oñatiko Udaleko Berdintasun Teknikaria

Oihane Ruiz de Apodaka Bermudez